

ARO MODERNOA

XVI. mendean, Nafarroako Erresumaren Konkistak bitan zatitu zuen lurraldea.

Muga-lerroa marraztu zuen Aro Modernoa izeneko aldiaren hasieran.

Hurrengo bi mendeetan, lerro hori are zehaztuagoa gelditu zen. Frantziak eta Espainiak Pirinioetan finkatu zuten.

Euskaldunak, ondorioz, nabarmenago agertu ziren erresuma bien menpeko eta mugapeko.

Herritarrek, ordea, antzinako harremanak eta usadioak atxiki zituzten mugaldean.

Lehen bezalaxe, beren haziendak auzo-ibarretako larreetara eramaten jarraitu zuten, mendez mende gaur arte heldu den ohiturari eutsiz.

Erresumek ezarritako oztopoak gaindituz, Baigorri, Erro, Garazi, Aezkoa eta beste bailara batzuetako abeltzainek akordioak adostu zituzten bateko eta besteko herri-lurrak erabiltzeko.

Mugetan gaindi.

Eta halaxe ere hizkuntza.

«*Heuskara, habil mundu gucira!*», aldarri egin zuen Bernart Etxepare deituriko nafar batek euskarazko lehen liburuan.

EUSKARA JENDEA **Gure hizkuntzaren historia,** **gure historiaren hizkuntza**

MUGETAN GAINDI

Menperatzeko ahaleginek XI. mendera eraman arren, Gaztela eta Aragoiko Fernando '*Katoliko*' erregeak 1512an abiatu zuen Nafarroako konkista militarra. Ordurako, hiru mende ziren Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba bereganatuak zituela Gaztelak. Lapurdi eta Zuberoa ere Frantziaren esku ziren jada.

Bi hamarkadaz gatazka aldi odoltsua izan zen, nafarrek lurraldea berreskuratzeko egindako saioengatik.

Lurralde-zatiketaren ondorioz, hegoaldean konkistatzaileek estamentu politiko eta erlijioso guztietako nafarrak ordezkatzeari ekin zioten.

Iparraldean, berriz, erresumak biziraun egin zuen, nabarmenki gutxiturik.

XVI. mendearen hasieran, bestalde, Espainiako eta Frantziako erresumak sendotzeaz batera, administrazioaren egitura ere indartu zen.

Herritarren eta mundu ofizialaren arteko arrakalak zabaltzen jarraitu zuen euskaldunen kaltetan.

Hala ere, Joseba Agirreazkuenaga Euskal Herriko Unibertsitateko Historia katedradunak dioenez, artean ez zegoen bereiztuta zein zen hizkuntza nagusia.

Joseba Agirreazkuenaga

Abokatuak, eliztarrak, eliz-gizonak... hizkuntza bat baino gehiago behar zuten beren karreretan, eta euskara izatea oso garrantzitsua zen. Adibidez, 1530ean gotzain elebiduna eskatu zuten Iruñerako, hau da, euskalduna. Zergatik? Beharrezkoa zuelako.

Iruñeko elizgizonen aldarrikapenak arrazoi bakar bati erantzuten zion: Euskal Herriko parte gehiengan bezala, Nafarroa Garaian euskara hizkuntza arrunta zen.

Dakigularik, hura izan zen euskararen beharra aldarrikatu zen lehenengo aldia, eta konkistaren ondorioetako bat izan zen.

Edonola ere, Elizak kudeatzen zituen herri euskaldunak eta erdaldunak. Apaiz euskaldunak nora igorri jakiteko, inkesta egin zuen Nafarroan 1587an.

Bertan '*bascongado*' bezala, alegia, euskaldun elebakarra, 451 herri ageri ziren; gainerakoak 58 ziren, hizkuntzaren muga Tafalla aldean zegoelarik.

Hala ere, Aro Modernoaren hastapenetan jadanik azaldu ziren aurreko mendeetan hasitako prozesuaren ondorioak.

Gasteizen, Arabako hegoaldeko herri batzuetan eta Nafarroako hego eta ekialdeko beste batzuetan, euskaldun huts izatetik gehiago erdalduna izatera igarotzen hasiak ziren.

Beñat Oihartzabal euskaltzaina eta IKER zentroko hizkuntzalaria da. Haren esanetan, lurraldeok muga geografikoan egoteak edo Gasteizko goi-klaseek Madrilgo Koroarekin harreman gero eta estuagoak izateak eragin zuten, besteak beste, hizkuntza-atzerakada honetan.

Beñat Oihartzabal

Urrundik ikusirik espazioan gertaturiko fenomenoak da. Uhin baten parean agertzen zaigu euskararen atzeratze hori. Baina hurbilagoetik ikusirik, badirudi gizarte faktoreek zutela horretan garrantzirik handiena eta, bereziki, erdalduntze hark gizarte-talde gorenetan eta hiriguneetan hartu zuen lehenik indar.

Hura ez zen, ordea, Iparraldeko kasua. Iparraldean euskararen egoera franko egonkorra mantendu zen XX. mendera arte, Baionan salbu:

Beñat

Baiona, beraz, ez zen euskal herrialde bat garai haietan. Hizkuntzari dagokionez, hiri gaskoia zen. Gaskoiera zen hango mintzaira nagusia, nahiz eta euskara ere erabiltzen zen eta euskaldunak harat joaten ziren.

XVI. mendean Elizaren jarrerak ere bereiziko ditu Iparraldea eta Hegoaldea hizkuntzari dagokionez, bai eta erdaren egoera desberdinek frantses eta espainol erresumetan.

Espainiakoan, Gaztelako hizkuntza azkarki hasi zen nagusitzen erakundeetan:

Beñat

Espainian gaztelerak oso goizik hartu zuen, latinaren aitzinean, Frantzian frantsesak hartu ez zuen toki bat, indar bat, bai administrazio munduan, bai Elizaren munduan, bereziki Trentoko berrikuntza asko Espainian jadanik, antzinatik, eginak izan baitziren.

Frantziako erresuman, beraz, latina zen oraindik kultur eta erakundeen hizkuntza. Frantsesa, boterearen mintzoa izanagatik, herritarren gutxiengo batena baino ez zen.

Une hartantxe, baina, Errenazimentua izeneko aldi kulturalaren eraginpean, hasi zen frantsesaren aldeko mugimendu eta politika. 1539an, adibidez, administrazioaren testu guztiak frantsesez egitea agindu zuen erregeak.

Giro honetan, Bernart Etxepare erretore garaztarra ageri zaigu.

Etxeparek euskarazko lehen liburua plazaratu zuen 1545ean, '*Linguae Vasconum Primitiae*', hau da, euskaldunen mintzairaren hastapenak.

Erdaraz idazteak sor zitzakeen kalteak sumaturik, Etxepare lehenengoa izan zen hizkuntzaren normalizazioa aldarrikatzen: «*Euskara, jalgi hadi plazara!*».

Beñat

Badakit batzuetan erran nahi izan dela Etxepare zela Erdi Aroko mundu galdu baten oihartzuna edo halako zerbait. Ez! Etxepare egiazki XVI. mendekoa zen, bere garaikoa eta, gainera, kultura gaietan orduko giroaren adierazpen bat. Dударik batere gabe.

Etxeparek bazekien euskarazko lehen liburua egiten ari zela baina ez zen lehen aldia euskaraz idazten ari zela.

Beñat

Azpirarratzekoa da, jada, Etxeparek bai grafiaren aldetik, bai euskararen beraren aldetik, bai ortografiaren aldetik bazuela maila bat, **badela, badirela**, bazela seguraski idatzizko tradizio bat mundu pribatuan garatua izan zena. Beraz, inprimategiko mundutik kanpo.

Horren adibide izan daiteke, mende berean, Juan Perez de Lazarraga arabarrak artzain-nobela bat, amodiozko olerkiak eta kantak bildu izana eskuizkribu batera.

(*pausa laburra*)

Errenazimentuan, bestalde, Erreforma protestantea sortu zen Erromako Elizaren aurka. Protestantismoa laguntza itzela izan zen European zenbait herri hizkuntzarentzat.

Martin Luterok Biblia itzuli zuen grekotik alemanera 1534. urtean. Modu honetan, aleman batuaren oinarria jarri zuen.

Ordurako protestante edo hugonoteen mugimendua euskaldunen artean ere zabaltzen hasia zen.

Protestante bihurturiko Albretoko Joana Nafarroako erreginak herritarren hizkuntzetara bultzatu zuen Bibliaren itzulpena, hau da, euskarara eta biarnesera.

Euskaraz, Joannes Leizarraga lapurtarra arduratu zen, apaiz laguntzaile talde baten buru zelarik.

Leizarragak lehenik eta behin, erlijio berria hedatu nahian, indar berezia egin zuen euskara maisuki baliatzen gisa horretako itzulpen batean.

Beñat

Eta, bestalde, bigarrenekorik: egin behar zuen hori ahalaz euskaldun guztientzat. Euskaldun guztientzat eginen zuela erran zuen.

Horrela, idatzitako testua Ipar Euskal Herriko euskara bateratu bat egiteko lehenengo saioa izan zen.

Euskarazko testuek, bestalde, irakurtzen zekien jendea eskatzen zuten. Horregatik irakurketa euskaraz nola erakutsi behar zen ere azaldu zuen Leizarragak:

«Berze natione guziek, zeinek bere lengoajean bezala, Heuskaldunak-ere berean duenzat, zertan irakurtzen ikas ahal dezan, [...] nezesario estimatu ukan dut, ABC haur berze instruktionerekin Heuskaraz-ere iar ledin».

Beñat

Pentsa daiteke hark lan hura egiten zuela pentsatuz geroago formatu behar ziren irakasle batzuek baliatzen ahalko zutela jendeari ikasazteko, baina prozesu baten hastapena zen alderdi horretarik. Badakigu, gainera, moldatu zituela zenbait gazte euskararen aldetik. Baina hugonoteen borroka hura laster galdu zen eta hark ez zuen segidarik izan.

Leizarragaren Biblia laster izan zen baztertua, katolizismoa nagusitu zelako. Ondorioz, eredu bateratu bat sortzeko eta herritarrek alfabetatzeko asmo honek ez zuen eraginik izan.

1589an, Nafarroako Enrike III.a katolizismora bihurtu eta gero, Frantziako errege ere izendatu zuten.

«*Parisek ongi merezi du meza bat*» esan omen zuen.

.....

XVI. mendean, aurreko hiru mendeetan hasitako antolamendua finkatu zen zeharo. Hiri-sare indartsu bat azaldu zen ekonomia-hazkunde baten baitan.

Miren Egaña Goya Batxillergo Institutuko Euskara katedradun ohiak azpimarratzen duenez, bestalde, lehorreko garapen honekin batera, itsasoak ere garrantzi ikaragarria hartu zuen.

Baleez gain, bakailoaren arrantza ere bilakatu zen arrantzaleen helburua.

Miren Egaña Goya

Bakailoa era askotan ekartzen zuten: lehorra eta gatzatua ekartzen zuten; ur gatzatuan... Eta era haiek izen ezberdinak jasotzen zituzten, frantsesez esate baterako. Euskaraz, aldiz, bakailoa deitu izan zaio eta, gainera, izena eman zioten lurralde hari: 'Bakailoa', '*Tierra de Bacallaos*' agertzen zen mapetan.

Arrantzaleen joan-etorriek berebiziko eragina izan zuten Euskal Herriko kostaldean.

Miren

Kostaldeko herri guztietan izugarriko eliza handiak daude. Horrek adierazten du bazegoela diru sarrera bat. Zer gertatzen zen? Haiek ekartzen zuten bakailoa sartzen zen, baina bale-gantza, bale-zeina, ez zen hona sartzen. Ingalaterran, Frantzian eta Holandan saltzen zuten. Orduan, hura ez zen inon agertzen.

Herri ugaritan topa daitezkeen armarriek eta harri landuzko etxeetako atalburuek ere salatzen dute inon ageri ez den diru-sarrera hori.

Miren

Esate baterako, oso esanguratsua da Zarautzen agertzen dena, oso erliebean, letra gotikoekin, eta abar.

Miren

Bermeon bale izugarri bat dago, baita Getarian, Miarritzen edo Hondarribian ere. Esan nahi du han tradizio handi bat zegoela, XVI. menderaino eta gehiago iristen zena.

Arrantzaleen presentzia hau Kanadako Ternuan eta Labradorren hamaika testutan jaso zuten garaiko kronistek. Eta ez zioten jarduerari soilik erreparatu:

Esteban Garibai historialariak, esaterako, Ternuako biztanleen euskara ikasteko trebetasuna azpimarratu zuen '*Compendio Historial*' liburu-sortan.

Pierre de Lancre Lapurdiko inkisidore ankerra, berriz, haratago joan zen.

Miren

Horrek esan zuen, eta gero beste batzuek ere bai, Kanadara joateko euskara jakin behar zela. Baina, urrutira joan gabe ere, gure Axularrek, '*Gero*' liburuko hitzaurrean euskararen hedadurari buruz ari zelarik, aipatu zituen banan-banan «*zazpi probintziak eta beste anitz lekutan*». Nik neure buruari galdetzen diot ea «*beste anitz lekutan*» hori ez ote zen Biarno (Biarnon izan baita euskara orain arte) edo ez ote ziren lurralde haiek.

Izan edo ez, bidaiotan harremanak finkatu ziren bertako herriekin, Innu eta Mikmakekin bereziki. Herritarrek, besteak beste, larruak trukutzen zituzten burdinazko tresnak eskuratzeko.

XVI. mendean hasitako trukeok elkar ulertzeko hizketa-modu berezia sortzea eragin zuten.

Hizkera berezi hauei '*pidgin*' esaten diegu.

Peter Bakker Danimarkako Aarhus Unibertsitateko ikertzailea, aditua dugu pidgin-etan.

Euskaraz mintzatzera ere ausartzen den hizkuntzalari eta historialari honek sakonki aztertu du gure hizkuntzak Aro Modernoan Islandian eta Kanadan utzitako arrastoa.

Peter Bakker

Pidgina, hizkuntza diferenteak dituzten giza-talde bi elkartzean garaturiko lengoia da.

Bakker

XVI. mendean, jendea mundu eta zibilizazio berrietarantz nabigatzen ari zen. Beraz, gogor ekin behar zion inoren hizkuntza ikasteari. Egonaldi laburretan ez zegoen pidginik sortzerik; baina urtero joanez gero edo luze izanez gero, pidgina gara zitekeen.

Bakker

Ipar Atlantikoan mintzaturiko pidginak interesgarrietakoak dira. XVI. mendean euskaldunak sarri joaten ziren hara. Garai horretakoak dira islandiera-euskara hiztegitxoak. Zehatz esateko, lau hiztegitxo ailegatu dira gure eskuetara.

Bakker

Laugarrenak ehunka hitz ditu, bai eta esaldi batzuk ere. Esaldi hauek, nahiz eta ingelesezko zein gaztelerazko hainbat hitz izan, euskarazko pidgina osatzen dute. Argi dago Islandian, XVI. mendearen hasieran, euskarazko pidgin bat mintzo zela.

Bakker

«*For ju mala guissuna*» dugu esaldietako bat.

Bakker

Euskaraz, seguruenik, «*zu gizon txarra zara*» esango genuke, ez «*for ju mala gissuna*». Islandiako euskal pidginaren adibide bat da, beraz.

Bakker

Bestalde, XV. eta XVI. mendeetan Ternuara joandako milaka euskaldunek harreman estuak sortu zituzten hango bizilagunekin. Indiarrek haien hizkuntza ere ikasi zuten neurri batean. Ez zen euskara, noski, euskararen eta beren hizkuntzaren arteko pidgina baizik.

Bakker

Mikmak hizkuntzaren dokumentazioa gorde da, XVI. mendekoa. Honako hitzok topa daitezke: '*makia*' (makila); '*kessona*' (gizona); '*Basquoa*' (euskalduna); '*balia*' (balea)... Duda barik, han ere bazen pidgin bat.

Bakker

XVI. mendean, frantsesek euskaldunekin topo egin zuten han. Frantsesek lurra eta baliabideak ustiatu nahi zituzten. Euskal arrantzaleen eta merkatarien kopuruari handiegi iritzita, kanporatzen saiatu ziren. Baina, bestalde, ohartu ere egin ziren aiseago ibili ahal zirela euskaldunen eskutik lurralde haietan barrena. Euskaldunek harreman onak egin zituzten bertako bizilagunekin, eta hark izugarri lagundu zien frantsesei Kanadako kolonia ezartzen. Frantzia Berria deitu zioten, baina ordurako Bizkaia Berria zen, Euskal Herri berri moduko bat. 1603tik Nouvelle Biscaie izenarekin ageri da mapetan.

.....

XVI. mendean arrantzaleek artean ez zuten garbi nolakoa zen Ternua. Uste zuten lurralde haiek uharte pila bat zirela. Mapetan beti '*Bakailao*' izena agertzen da uharte mordo baten gainean.

Mende hondarrean Martin de Oiartzabal nabigatzaile ziburutarrak Ternuako itsasbide liburua argitaratu zuen frantsesez.

Hurrengo mendean, berriz, Donibane Lohizuneko Piarres Etxeberri armadoreak '*Itxasoco nabigacionecoa*' plazaratu zuen, Oiartzabalena zehaztaper berriez aberastuz eta euskarazko lehen liburu teknikoa sortuz.

Ordurako kartografia-eskola bat osaturik omen zen Lapurdin eta, bereziki, Donibanen bertan. Mapak egitea zen helburu behinena.

Oso mapa zehatzak. Ez zuten zer ikusirik beste nabigatzaile batzuenekin.

Miren

Nik, italianoek, frantsesek edo ingelesek egindakoak ikusi ditut. Ez dute izenik ematen, ez zekiten zer zegoen han. Eta hori oso gauza bitxia da. Izan ere, Etxeberrik bere bi mapa egitean eta bere '*Itxasoco nabigacionecoa*' idaztean, xehetasun handiz eman zuen kosta guztia. Izen pila agertu ziren han, euskal izen-deitura gehienak. Orduan, hura beren sekretua zen, euskaldunen sekretua, beren altxorra, ez zioten inori kontatzen, nondik ekartzen zuten ez bakailaoa, ez balea, ez ezer. Bestela ezin da ulertu.

Arrantzan luzaro bakarrik ibili izanaren aztarna toponimian gelditu da. Arrantzaleek izenak eman zizkieten Ternuako eta Labradorreko lekuei.

Etxeberrik ugari jaso zituen: Balea Baya, Portuchoa, Aingurachar, Ophor Portu, Barrachoa...

Baina geroago frantsesak, ingelesak, eta, azkenik, kanadarrak han izateak nahiko desitxuratu du toponimia.

Bestalde, euskaldunen eta bertakoen arteko harremanen beste lekuko bat 'Basque' deitura da. Gaur egun abizen hau zabaldurik dago Kanadan, bereziki amerindiarren artean.

Miren

'Basque' abizen indioa da. Esan nahi du noizbait nahastu egin dela hango emakume bat bertako arrantzale batekin eta 'Basque' jarri diote deitura. Nik horiek ikusi ditut, etxe baten aurrean 'Basque'. Hori zen abizena.

XVII. mendeko bigarren partean izugarri murriztu ziren arrantzaleen bidaiak.

Ordurako, baita ere, ageri-agerikoa zen itsaso-munduaren eragina lehorreko bizimoduaren arlo askotan. Lapurdiko idazleen testuak dira horren erakusgarri:

Beñat

Lapurtar idazle haiek, Materre-k berak, Etxeberrik, eta abarrek arrantzaleentzat idazten zuten. Bazituzten hitz bereziak arrantzaleentzat: «*Arrantzaleek liburu hori baliatuko dutenean, hala eta hala egin behar dute...*». Hori desagertu egin zen. Arrantzaleak ez ziren gehiago aipatu Iparraldeko literaturan, hain zuzen ere arrantzaren garrantzia gutxitu zelako.

Miren

Azkenekoa 1713an izan zen. Utrecht-eko Itunak kanpoan utzi zituen. Frantziak Ternua galdu zuen momentu hartan, ingelesak eskutan gelditu zen. Espainiako erregea izango zenaren aitona zen orduan Frantziako erregea. Nahi zutena eta gehiago sinatzen ari zen batere kontuan hartu gabe euskaldunen interesak. Bestalde, Madrili ere ez zitzaizkion inoiz axola izan. Euskaldunak ezin joanik gelditu ziren.

.....

XVII. mendean, bada, Hego Amerikan izan ezik, itsaso zabala muga bilakatu zitzaizen euskaldunei.

Lehorrean ere Frantziak eta Espainiak finkatutako muga berriek areago bereizi nahi zituzten euskaldunak.

Bi erresumek, luzaro elkarren aurka borrokatu ondoren, bakea adostu zuten 1659an, Pirinioetako Hitzarmenaren bidez.

Ituna, Hendaia eta Irun artean dagoen Faisaien Uhartean sinatu zuten.

Egun oraindik bada lur zati ñimiño honi '*Konpantzia*' deitzen dionik, alegia, Konferentziaren Irla.

Bidasoa erdian, Frantzia eta Espainia arteko muga zehazten hasi ziren.

Mugaldeko herri eta ibarretan, aldiz, eguneroko bizimodua ez zen gehiegi aldatu. Fazeria izeneko akordioei esker, urtero, Nafarroako alde bateko haziendek muga zeharkatzen zuten beste aldeko larreetan bazkatzeko.

Joseba

Erresumek zera esan zuten: «Hemendik hona, Pirinioetan, doa gure arteko muga». Baina menditar batentzat, bertako biztanle batentzat, elkarren arteko hartu-emanek berdin edo nahiko berdintsu jarraitu zuten. Pirinioetan faceriak ere bazeuden, hau da, bailara desberdinetako arteko azpi akordioak. Beraz, batetik tratatu formala zegoen eta, bestetik, komunitateen arteko hitzarmenak ere bazeuden egunerokotasuna bideratzeko.

Hizkuntza ere ageri zen, bestalde, mugetan gaindi.

Joseba

Erresumen arteko muga teorikoa bazegoen baina, baita ere, komunitate bakar bat. Hizkuntzarekin sortzen zuen solidaritate komunitario hori nabaria da.

Benetako hesiak, hortaz, beste alor batzuetara hedatu ziren.

Frantsesak eta, batez ere, gaztelerak luzaro zeramaten errotzen administrazio zibilean eta erlijiosoan. Euskaldunek gordinkiago egin zuten topo haiekin XVII. mendean, Hegoaldean batik bat.

Administrazioek, onenean, itzultzaileen bitartez gainditzen zuten komunikazio arazoa. Baina, aldi berean, hiztunenganako gutxiespena ere bultzatzen zuten, interpretearen beharrak beren lurralde propioan arrotz bezala hartuak zirela erakusten baitzuen.

Honi guztiari euskaraz aritzeko debekuak ere gehitu behar zaizkio. Mende honetan, kasu, erdararen ezagutza derrigortu zen Bizkaiko Batzarretan eta Arabako Ermandadean.

Joseba

Euskara, baita ere, eskusiorako erabiltzen zen. Adibidez, debekatu egin zen Bizkaiko Batzar Nagusietan gaztelaniaz idazten eta irakurtzen ez zekien ordezkaria. Baina garai hartan gazteleraz idazten eta irakurtzen Gaztelan bertan ere jende gutxi zekien! Esklusiora jotzeko sistema bat zen hura.

Erljioaren eremuan, bestetik, protestantismoaren kontrako giroan, Eliza katolikoa dotrinaren ezagutza eskatzen hasi zen. Horretarako, Iparraldean bereziki, herri hizkuntzak erabiltzeko deliberoa hartu eta dotrina herritarrek ulertzeko eran eman zedin agindu zuen.

Egoera honek, besteak beste, bertako garapen literarioa ahalbidetu zuen, euskara idatzi landu eta jasoa, euskara literario klasikoa deitu dena sortuz.

Donibane Lohizune eta Sara inguruan bildutako idazle multzo bat izan zen Lapurdiko loraldi literarioaren erdigunea.

Mugimendu honi Sarako Eskola deitzen zaio.

Beñat

Halako eskola antolaturik izan ez bada ere, ez da dudarik han, garai hartan, euskaraz ari ziren idazleek elkar ezagutzen zutela, elkar laguntzen zutela. Bereziki elizagizonen artean zen giro euskaltzale hura aski indartsua izan zen, batetik, euskaldun berri batzuk sorrarazteko eta idatzarazteko; eta, bigarrenetik, Lapurditik kanpo ere beren eragina izateko.

Haien artean Esteve Materre frantziar apaiz etorkina. Euskarazko lehenengo dotrina argitaratu zuen 1617an. Itzulpena izan gabe, prosaz egindako euskarazko lehen liburua:

Beñat

Hori harrigarria da baina hala da. Eta, gainera, ikusten da jada lapurtera klasikoaren ezaugarri guztiak zituela Materrearen liburuak. Ez zen ondotik sortu hori. Oinarriak han ziren. Erdi mailako euskara horren oreka aurkitu zuen hark. Seguraski besteekin ikasia, dudarik batere gabe.

Materre, baina, ez zen izan euskara ikasi zuen bakarra. Frantziako Bourges hiritik etorritako beste elizgizon bat, Silvain Pouvreau, itzulpen lanak egiteaz gain, hiztegi eta gramatika batean ere ahalegindu zen.

Pouvreau, gainera, harremanetan izan zen Arnaud Oihenart zuberotarrarekin.

Idazle eta abokatu honek, Sarako Eskolaren eredutik kanpo jardun arren, olerkiak ondu, esaera zaharren bilduma bat osatu eta, latinez, Euskal Herri osoko lehen historia kaleratu zuen: *'Notitia Utriusque Vasconiae'*.

Hala ere, Sarako Eskolako idazle guztien artean bat nabarmendu zen: Pedro Agerre Azpilkueta, Urdazubiko Axularrenean jaioa.

Axularrek, 1643an argitaratu zuen gure literaturaren klasikoa den *'Gero'* liburua.

Bertan, euskara kultura idatzitik at gelditzeak zituen ondorioak garbi ikusi zituen Axularrek:

«...*Orai badirudi euskarak ahalke dela, arrotz dela, eztela jendartean ausart, entregu, bithore eta ez trebe. Zeren are bere herrikoen artean ere, ezpaitakite batzuek, nola eskiriba, eta ez nola irakur*».

Izan ere, herritarren ahozko hizkuntza aldaera literario bilakatzea eta, ondorioz, normalizatzea ere baziren idazle hauen asmoak.

XVII. mende bukaerarako, baina, baldintza soziolinguistikoak aldatzen hasiak ziren.

Emeki-emeki, Lapurdin loratutako mugimendua itzaltzen joan zen.

.....

Sarako eskolak arrasto sakona utzi zuen, idazteko era bat finkatu eta zabaldu baitzuen herritarren artean.

Horren testigantza hurbila garaiko familia-gutunek eskaini digute mende erdi geroxeago.

1757an '*Le Dauphin*' itsasontzia Baionako portutik abiatu zen Kanadarantz. Ontziak euskarazko hirurogeita hamar bat gutun zeramazkien Louisbourg-eko euskaldunei.

Beñat

Hor ikusten da bazirela herriko jendeak, zera, berriak emateko, familiaren berri emateko eta hala, euskara hein batean ikasia zutenak. Idazteko, agurtzeko edo berria emateko maneran nabaria zen. Euskara landu bat bazen han, tradizio bat. Eta, dudarik gabe, oinarria XVII. mendeko lapurtar haien lanetan aurkitzen zen.

Egiazki, gisa horretako gutun-trukeak izateko, uste baino herritar gehiagok jakin behar zuen euskaraz irakurtzen eta idazten.

Euskaldunen alfabetatzean, bere xumean, zer ikusteko handia izan zuten XVII. mendean sortutako eta, batez ere, XVIII. mendean hedatutako herrietako eskola ttipiek, Orogen Eskolak deituak.

Orogen Eskolak, gehienbat, Elizak bultzatu zituen. Haren babesean eta begiradapean zeuden hasiera batean, behintzat.

Lehen helburua kristau dotrina ikaslaraztea bazen ere, eskolatze herrikoi honetan normalki hiru gaitasun oinarrizko lantzen ziren: irakurtzekoa, idaztekoa eta zenbatzekoa.

Gure eskuetara bi eskola-liburu heldu dira: bata, XVIII. mende bukaerako '*Instrukzioea Gazteriarentzat*', 24 orrialdekoa; bestea, iduriz Hazparneko eskola bateko nesKentzat atondutako liburuxka.

‘Instrukzioea-ko’ orrietan, erlijioaz gain, historia, fisika, Greziako mitologia eta geografia ere badira, aspaldiko sistema pedagogikoa erabilirik: galdera-erantzunak.

—Uste nuen Iguzkia itsasoan etzaten zela...

—Iguzkiak beti ergitzen du; etzaten da guretzat; erran nahi da, ikustetik gelditzen girela, bainan denbora berean jaikitzen da Amerikako populuentzat; erran nahi da, bere aldian haren ikusten hasten direla. Bada, zaharrek etzuten Amerika ezagutzen, etzakiten Lurra biribila dela, eta inguruna guzian habitatua dela.

Eskoletan liburugintzarako jauzia egina zuen komunitateak bazituen, era berean, beste bide batzuk herriaren sormena plazaratzeko.

Beñat

Koplak eta bertsoak zeuden, garai horietan guztietan bizi zirenak, haien aztarna gutxi gelditu bazaigu ere. Eta antzerkiak ere baziren.

Jende xeheak, bada, herri-antzerkia baliatzen zuen adierazpide gisa.

Horren adibidea dira, besteak beste, gaur arte heldu diren pastoralak.

.....

Carlos II.a Austriakoa ondorengorik gabe hil izanak sortutako gerraren ondorioz, XVIII. mendearen hasieran Utrechteko Itunak berriro marraztu zuen Europako mapa.

Muga berriak ezarri ziren.

Erresuma askoren arteko hitzarmen honetan, bereziki Ingalaterra irten zen garaile eta, aldiz, Frantzia eta Espainia galtzaile.

Erresuma biok, kanpoan ahulago izan arren, barnean egunetik egunera indar handiagoa zeukaten. Eta, besteak beste, beren mintzaireren aldeko politika zorrotzagoa jarri zuten martxan.

Joseba

Erresumak gero eta sendagoak ziren XVIII. mendean. Korteak agintzen zuen. Bestalde, burokrazia administratiboa ere indartu zen. Orduan, euren aginduak ulertarazteko nahi izan zuten hizkuntza franko bat, komunikaziorako hizkuntza-tresna bat.

Espainian, mendearen bigarren partean, argitalpenetan, eskoletan edo administrazioan erdara bakarrik erabiltzeko xedapenak eman ziren.

Nafarroan, esaterako, auzi zibil eta erlijiosoetan lekukoen adierazpenak hartzen zituzten komisarioei euskara azterketa egiteari utzi zioten 1765. urtean.

Herrialde honetan bereziki, erdararen aldeko politikak guztiz higitu zuen gizartearen trinkotasuna, hautsi, mintzaira azkarki ordezkatzeko giroa sortuz hurrengo mendean.

Egoera honi aurre egin nahian, han eta hemen euskararen defendatzaileak eta goresleak plazaratu ziren, hala nola Joanes Etxeberri Sarakoa, Martin Harriet, Agustin Kardaberaz eta, batez ere, Manuel Larramendi.

Beñat

Larramendik haustura bat egin zuen. Lehenago egon ziren euskararen apologia egina izan zuten autoreak. Gehienetan beren apologia zen erratea euskara oso zaharra zela. Baina hizkuntza bezala erabilgarritasuna eta izaera ez ziren ongi finkatuak. Baziren, iduriz, dudak horretaz. Orduan, Larramendik gaitzeko lana egin zuen gauza haien edo ustekeria haien gainditzeko.

Mintzairaren defentsarako lanez gain, Larramendik izenburu zeharo argigarria duen gramatika karrikaratu zuen: *'El imposible vencido'* (1729). Ezina ekinez egina.

Kardaberazek, geroago, beste liburu bat atera zuen: *'Eusqueraren berri onac'*.

Bertan jakinarazi zigun ordurako eskoletan *«sortija, siñal, azote eta kastiguekin»* eragotzi nahi zutela euskara.

.....

Mendea bukatzerako, Iraultza piztu zen Parisen 1789an.

Parisko Legebiltzar berriak lege bakarra inposatu nahi zuen Estatuan.

Ondorioz, Lapurdi, Baxenafarroa eta Zuberoako legedi propioa desagerrarazi zuten, Biarnorekin bildurik, Frantziako departamendu bihurtuz orain arte.

Bestalde, hizkuntza eta identitate bakarraren aldeko politika sendoa ere hasi zen.

1794an Bertrand Barère frantses iraultzaileak hizkuntza nazionalaren ideia eraman zuen Biltzarrera:

Joseba

Zera esaten hasi zen: «Estatu batean, estatu nazional batean, hizkuntza bat egon behar du». Ideologia hura ideologia berria zen. Ordura arte hizkuntzak erabili egiten ziren, baina ez bata besteari kontra. Une hartan, ordea, aginte politiko guztiarekin, bat beste guztien kontra hasi zen askatasunaren izenean.

Jakina, frantsesa da askatasunaren hizkuntza.

Joseba

Beste guztiak (alemana, italiera, 'patois' guztiak, gaskoiera, eta abar), frantsesa ez ziren guztiak, Errepublikakoaren aurkakoak lirateke.

Euskara zaku berean zegoen. Barèrek, Tarbekoa izanik, ondo ezagutzen zituen euskaldunak.

Joseba

Hauxe esan zuen: «Ez, euskaldunak benetan herri independentea izan dira. Despotismo guztien kontra borrokatu dira. Benetan jatorrak eta goratzeko herri bat dira euskaldunak. Gainera, frontieran, Iraultzaren aldeko errepublikanoak dira. Baina tartean apaizak daude. Eta apaizek fanatismoa eragiten dute. Eta euskara erabiltzen dute herria fanatizatzeko».

Errepublika berriak, bada, herri mintzairaren suntsipenerako politikari ekin zion, gaur egun oraindik indarrean dagoena.

Joseba

Askatasunaren izenean, euskal hiztunak mutu gelditu ziren. Izan ere, jende asko elebakarra zen. Eta XIX. mendean, XX. mendean eta XXI. mendean ideologia horrek indartsu segitzen du bi mende igaro arren. Eta Espainian ere horren ildoan, horren dinamika beretsuan, ideologia hori hartuz joan zen, indartuz. XIX. mendean gaztelaniaren halabeharrezkotasuna eta obligazioa gero eta nabarmenagoa izan zen.

.....

Aro Modernoaren hondarrean hiztuna nola isilarazi bilatu zuten.

Hizkuntza nola mugapeko bilakarazi.

Hala ere, trabak traba, euskarak aski tinko iraun zuen ordu arte lurralde gehiengan.

Nafarroako erdialdean, adibidez, horixka kolorea nagusi den ortzi-muga zabaletako eremuetan, euskararen marra ia ez zen mugitu azken mendeetan.

Paisaia berde, heze eta baserri isolatutik urrun, Artaxoa herri euskaldunen mugan ageri zen Elizak XVI. mendean egindako zerrendan.

Bi mende geroago, halaxe segitzen zuen:

Herriko aferak eta auziak konpontzeko, 1790ean bigarren idazkari baten premian izan ziren Artaxoan.

Udalak, alkatea buru, Rafael de Ororbia izendatua izan zedin eskatu zuen.

Eskaeran eguneroko mintzairaren berri ematen digun arrazoiak garbi azaldu zituen:

«...el enunciado Ororbia, natural de la referida villa, posee la lengua vascongada, que es la que comúnmente se usa en la misma...».

«...aipatu Ororbia, herri honetako semea, euskaraduna da, herri honetan normalki erabiltzen den hizkuntza delarik...».

Euskal komunitateak, hurrengo mendean gauzatuko zen atzerakada azkar eta handienaren bezperan, bizirik jarraitzeko nahia erakusten zuen.

Mugetan gaindi.